


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN MARTZIAL 18



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehilin arteko eraikina, behe oina eta lau goi oin dituen, gehi bi jasodura estalki mantsardatuan, txapituladunak. Harlanduzko fatxada behe oinean (baoak puntu erdiko arkuekin errematatuta), eta zeramikaz estalita, baoen azpadurak nabarmenduta eta zurezko begiratoki zentrala goi oinetan. Konposizioari, apaingarriari eta sekzioari dagokionez San Martzial 20ren berdina da.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zahatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.